

UDAL-AUTESKUNDEA

Udal-batza Euskalearrían

Gure erri, batez be itxas-alderantz dagoana, baserriak osotzen dabe eta asieran, leizetatik urte giñanean, bakar-etxea zan erkunde jatorra eta etxeko jauna agintari bakarra, baiña laugarren edo bostgarren gizaldian, Jesus'en Barri Ona artu genduanean, etxe bakartiak alkartu egin ziran eta auzoak edo kofrafiak artu eban garrantzi aundia, aurrean baseleiza edo ermitea eukela.

1300n.urte-inguruan erriak sortuta daukaguz eta parrokiak be euren eleiza aundiak daukez. Orduan 1000n. urte-inguruan alkartuak dira auzoak udala sortzeko eta parrokiak osotzeko. Aldi orretan asi ziran Bizkai'ko Jau-naren edo Erregearen aginduz billak edo uriak sortzen eta eurretarik asko 1300n. urte-ungurukoak dira.

Erriaren batzarrak, etxeetako jaunak batuta, eleizpean egiten ziran, aurretiaz kanpaia jota eta aurrean kurutzea zala. Oneri kurutze geldia esaten jakon eta eleizbidean erabilten zanari, kurutze jaso.

Batzar ori egiteko idazkaria jartzen zan mai baten. Ori da gaur eleizpe askotan daukagun maia eta erri batzutan, Gamiz'en esaterako, txupetal-arria esaten jako, beste batzutan ostera bagarea, idazkariak "ba-gara?" esan eta etorriak "ba-gara" erantzuten ebelako.

Or agertzen ebazan etxeko jaun bakotxak bere arazoak eta lege-bear-izanak eta ordezkaria bat aukeratzen eben Gernika'ko batzarrera arazoak aurkezteko.

Asikera oiturak baiño ez ziran, baiña gero, gizaldi bi ezbaridinetan idatzi egin ziran. Orreik eta orreik egiteko eskubidea dira gure lege zarra.

Erri-agintaritzaren oiñarria

Euskaldunentzat lenengo alkarte, len eta gaur, udal-batza da eta udal-batza sotzeko erritarrak dauken eskubidea sarritan kendu gura izan dauskue, ez Franco'k bakarririk, Cadiz'ko korteetan asi eta agintari guztiak baiño,

baiña udal-batzaren indarra betik dator, etxeko jaunetatik, eta ez dauka iñork eskubiderik ori kentzeko. Orra or gaur bizi-bizi daukagun arazoa. Arin esaten dabe udal-batz edo besteko alkatea edo udalkidea kentzeko, baiña ori ipiñi daben erritarren eskubidea da eta eginkizun okerre bat egin dauana alboratzeko eskubidea epailari zuzenak auki daikee, ez iñoz beste alderdi politiku batekoak.

Alderdi politikuak

Antxoña ez egoan alderdi politikurik, baiña bai izan ziran onein antzekoak ziran oiñaztarrak eta ganboatarrak, batia gure erriari ainbeste kalte egin eutsoen Aide Nagusiak be eta oneik alderdi politikuen antzera alkartzen ziran taldeetan euren eritxiak aurrera aterateko.

Gaur alderdi politikuak onartu-bearra daukagu eta onek be kalteak ekarri leikioz gure erriari: Zer egin Euskalerria gorroto daben alderdi batek indarra artzen ba'dau? gure errian lan egin anai daben alderdiai auxe eskatu bear letxikiue: Gure erria dan lakoa, zazpi lurraldeetan dagoana, onartu dagiela eta erria eratzeke benetako demokraziaren bidetik jokatu dagiela.

Eta ori nai ez ba'dabe ez dabe merezi udalkide izatea. Urrengo, benetako demokratik izan bear dogu guztiok, eurak be bai. Eta demokrazia erritarrengan oiñarritzen da eta goragoko legeetan.

Auteskunda dator

Laster dator ateskunde-eguna. Orrillaren 25n. egunean aukeratuko doguz gure errietan alkateak eta zinegotziak, lau urtetarako.

Alegingu gaitezan Euskalerria sendotzen eta indartzen, gure jatorria aitzu barik.

Olazar'tar Martin'ek



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU